

8. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak, denek bezala, gastu asko ditu, eta gastu horiek ondo kudeatu behar dira galerarik ez izatea ziurtatzeko eta kontsumitzaileari ematen zaizkion produktuekin edo zerbitzuekin ahalik eta irabazirik handienak lortzeko. Horretarako excel bat egin dugu enpresa sortzeko edukiko ditugun gastu eta diru laguntza guztiekin eta saltzen ditugun produktu eta zerbitzuekin.

Alde batetik, **sentsorea** →

Sentsorea ekoizten dugunez hainbat gauza kontuan hartu ditugu:

- Lehenik, hornitzaileei erosi behar dizkiegun gauzak hartu behar ditugu kontuan. Kasu honetan erosi behar ditugu: Arduino MKR NB 1500, Arduino MKR GPS SHIELD eta Azelerometroa (beste sentsore bat). Horretan 152,54 € gastatuko ditugu.
- Sentsoreak erostez gain, zorroa ere egin behar diogu sentsoreari plastiko birziklatuarekin, eta 0,20 €kostatuko zaigu.
- Beraz, zorroa duen sentsorea ekoiztea 152,74 € kostatuko zaigu.

Bestetik, **Kaskoa** →


Kaskoa ere ekoizten dugunez, gauza hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Lehenik hornitzaileei barruko almoadilak, kaskoaren basea eta kaskoaren korreak erosten dizkiegu.
- Dena eskuz montatu eta homologazio-probak pasatzera eramaten ditugu kaskoak.
- Behin proba gaindituta, kasko bakoitzaren zorro pertsonalizatua egin dezakegu.
- Horrek sentsorearen prozesu bera darama, 3D makina berarekin eta harizpi berarekin kasko pertsonalizatuaren zorroak egiten ditugu.
- Horretarako 19,03 € gastatu ditugu
- Kaskoen baseek 5,65 € balio dute.
- Almoadilek 13 € balio dituzte
- Kaskoaren zorrarako 0,38 € bakarrik gastatuko ditugu

Kaskoa 100€-tan salduko da eta sentsorea 200,99€ tan.

Produktuak prezio altu samarrean saldu arren, lehen urtean galerak ditugu. Ezin ditugu prezioak gehiago igo, bestela gure lehiakideek abantaila handia izango lukete.

Hauek ez dira ditugun kostu bakarrak, beste kostu batzuk ere ordaindu behar ditugu:



- Argia → 1056 €
- Alokairua → 1200 €
- Langileen soldatak → 1200 € bakoitza x4 (4.800€)
- Makinak → 7150 €
- Bidalketa-konpainia, GLS → 10 €bidalketa bakoitzeko

Urtean, guztira, 291.130 € ordaindu behar ditugu.